

# ELORRIO (San Agustín auzoa / Barrio de San Agustín)

– BIZKAIA –

Elorrio Durangaldeko herria da, Bilbotik 44 km-ra dago eta Durangotik 10 km-ra. 1356. urtean sortu zuen Tello Bizkaiko jaunak, San Agustín Etxebarriako lurretan. San Agustín Etxebarria Durangoko merindadea eratzen zuten elizateetako bat zen. Mende batzuk geroago, 1630ean, Elorrioko hiribildua eta San Agustínek elizatea anexionatu egin ziren, eta San Agustín merindadetik kanpo geratu zen. Gaur egun, hirigunetik kilometro batera, Zumelegi ibaiaren eskuineko ertzean dagoen auzoa da.

Izenak hainbeste aldaketa izan ditu historian zehar: garai hartan egiten zen moduan patrioiaren omenez *San Agustín Etxeberria* jarri zitzaion hasieran, eta gerora *Echevarria* edo *Etxebarria* formak ere hartu ditu, eta forma ofizial hori gorde izan du gaur egunera arte. Etimologiari erreparatuta, argi dagoenez, "etxe barria" esan nahi du. Euskal Herriko toponimo ugarienetakoa bat da, hainbat abizen eman dituena.

Elorrio es una población de la comarca del Duranguesado, situada a unos 44 km de Bilbao y a 10 de Durango. Fue fundada en 1356 por don Tello, Señor de Vizcaya, en el territorio de San Agustín de Echevarría, una de las anteiglesias que formaban parte de la Merindad de Durango. Siglos después, en 1630, la villa de Elorrio anexionó a la anteiglesia de San Agustín y ésta quedó fuera de la merindad. Hoy es un barrio situado a poco más de un kilómetro del centro urbano, en una estrecha vega en la ribera derecha del río Zumelegi.

Su nombre ha sufrido muchas variaciones a lo largo de su historia, desde *San Agustín de Etxeberria*, en honor a su santo patrón, como era muy común en la época, *Echevarria* o *Etxebarria*, forma oficial que ha conservado hasta nuestros días. Etimológicamente proviene del euskera, "etxe barria", traducándose como "la casa nueva", siendo uno de los topónimos más comunes en el País Vasco, que derivó en muchos apellidos.

## *San Agustín Etxebarria eliza Iglesia de San Agustín de Etxebarria*

**X**I. MENDEAREN ERDIALDEAN eraikitzen hasi ziren tenplu hau. Agiri batek dioenez (baliozkoa den zalantzan dago), eliza 1053. urtean fundatu zuten Munio Sanchez eta haren emazte Legunciak, ziur aski eraikin zaharrago baten gainean. Ordurako, San Agustín inguru hartako gune erlijioso garrantzitsu moduan ageri zen. Handik mende batera, eraikina estilo erromanikoaren arabera berritu zuten, gangak azkenekoz konpondu direnean berreskuratu diren piezek erakusten dutenez. Geroago, XVI. mendearen lehenengo erdian, eliza guztiz berritu zuten eta gaur ikusten dugun moduan utzi.

Sakristian, gaur egungo ganga betetzeko materialetan orain urte batzuk agertu ziren pieza erromaniko batzuk gorde dira. Harearrian daude landuta, batzuk forma kurbatuak dituzten soka itxurako motibo lodiz daude apainduta, eta beste bat landare-motibo geometrizatuz: erdiko zurtoin batetik irteten diren hosto luzatuekin. Figura batekin apainduta dagoen pieza bat baino ez dago: begiak

**L**A HISTORIA CONSTRUCTIVA de este templo se remonta a mediados del siglo XI. Según un documento de dudosa validez, la iglesia fue fundada en 1053 por Munio Sánchez y su mujer Leguncia, posiblemente sobre otra construcción más antigua. Ya en esta época, San Agustín aparecía como uno de los principales centros religiosos de la zona. Un siglo después, el edificio fue reformado en estilo románico, como parecen demostrarlo las piezas recuperadas en la última restauración de las bóvedas. Posteriormente, durante la primera mitad del siglo XVI, la iglesia fue totalmente remodelada, tal como la vemos hoy.

En la sacristía se guardan varias piezas románicas talladas en piedra arenisca, aparecidas hace algunos años entre el material de relleno de la bóveda actual. Varias de ellas están decoradas con gruesos sogueados que adoptan formas curvas, mientras que otra se adorna con motivos vegetales muy geometrizados, a base de hojas alargadas que parten de un tallo central. La única pieza con de-



*San Agustín eliza*  
*Iglesia de San Agustín*



*Hondar*  
*erromanikoak*  
*Restos*  
*románicos*



*Erlebe erromanikoa / Relieve románico*



*Etxebizitza partikular batean gordetako pieza  
Pieza conservada en un domicilio particular*

sartuta dituen buru biribileko pertsonaia da, adats laburra du, eta ilea lerro ebakien bidez zehaztuta. Gorputzean, eskuineko besoak eta jantziko tolestura batzuek baino ez dute iraun.

1992. urteko konponketetan, lan arkeologikoak egin ziren, eta orduan identifikatu ziren hegoaldeko ataria, XII. mendeko multzo erlijiosoaren zimenduak (gero San Martin eta Santa Marinako kapera altxatzeko erabili zirenak) eta nekropolia, eraikinaren iparrean. Ezaugarriak kontuan hartuta, XII. edo XIII. mendekoa dela esan daiteke, eta, beraz, eraikuntza erromanikoaren garai berekoa, I. García Caminok aipatzen duen moduan.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

coración figurada muestra un fragmentado personaje de cabeza redondeada con ojos ligeramente rehundidos. Lleva un peinado cuyos cabellos quedan definidos por líneas incisas que acentúan su melena. Únicamente se ha conservado parte de su brazo derecho y algunos pliegues de sus ropajes.

Durante los trabajos de restauración llevados a cabo en 1992, se realizó una intervención arqueológica donde se identificaron, en el pórtico meridional, los cimientos del complejo religioso del siglo XII, sobre los que se levantó posteriormente la capilla de San Martín y Santa Marina, y la necrópolis al norte del edificio. Por sus características puede ser datada en los siglos XII o XIII, siendo contemporánea a la construcción románica, como apunta I. García Camino.

Texto y fotos: JCE/MLAI

### *Bibliografía / Bibliografía*

BARAÑANO, K. y GONZÁLEZ DE DURANA, F. J., p. 66; GARCÍA CAMINO, I., 1991, pp. 84-88; GARCÍA CAMINO, I., 2002, pp. 151-166; MADDOZ, P., (1845-1850) 1990, pp. 99-100; MAÑARICUA, A. E., 1950a, pp. 304-325; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, II, pp. 904, 909-910; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 233-235.